

Ez dut hori esan!

–Egun on. Zu laborategian zeunden sua piztu denean, ezta?

–Bai, nik dena ikusi dut. Kimikako irakaslea esperimentua egiten hasi da eta, bat-batean, potoak eztanda egin du eta sua piztu da. Ikasle guztiak kanpora atera gara eta Eraitzek, ikaskide batek, suhiltzaileei deitu die; berehala etorri dira.

–Zauriturik izan da?

–Bai. Kalera atera garenean, Xabier falta zela konturatu gara, eta suhiltzaile bati esan diogu. Laborategiaren barruan aurkitu dute. Eztandarekin atzera erori da eta kolpea hartu du buruan, baina orain ondo dago. Oxigenoa jarri diote eta, zauriak sendatu ondoren, etxera eraman dute.

–Pozten naiz. Mila esker.

Mezu ezkutuen lehiaketa

–Kaixo, denoi! Aitzol Olariaga eta Maitane Ruiz gara. Webguneko mezu ezkutuak ikusi ditugu eta, momentuz, bi deszifratu ditugula uste dugu.

“Gazteon!” taldekoek esaten dute gauean autobusak nahi dituztela, eta, “Gaztegaragazte”koek esaten dute herrian bizi nahi dutela eta babes ofizialeko etxe gehiago noiz egingo dituzten galdetzen dute. Ondo asmatu dugu, ezta? Mila-mila esker!!!

–Egun on! Jokin eta Xabier gara. “Egurre” taldearen mezua asmatu dugula uste dugu. Galdetzen dute herrian zahar-etxea badago, zergatik ez dagoen gaztetxerik. Mila esker. Aiooooo!!!!

–Hepa! Iraia eta Oier gara. “Eutsigazte” taldekoek esaten dute herriko festetan euskal talde gehiago nahi dituztela. Bai, ezta? Ea saria irabazten dugun! Eskerrik asko! Agur!